


# Ispilu-segidak

Nola islatu daiteke argia hainbat aldiz?


## Materialak

– 5 edo 6 ispilu



## Zer egin

1. Jarri lehenengo ispilua zuzenean eguzki-izpitan.
2. Jarri bigarren ispilua lehenengo ispiluak eguzki-izpiak islatzen dituen lekuan.
3. Jarri hirugarren ispilua bigarren ispiluak eguzki-izpiak islatzen dituen lekuan.
4. Egin gauza bera gainerako ispiluekin, ispilu guztiak erabili dituzun arte. Zer gertatzen zaie eguzki-izpiei ispiluak horrela antolatzen dituzunean?



## Zer gertatzen da?

Ispiluak horrela antolatuta, izpiak ispilu batetik bestera, eta handik hurrengora... islatzen dituzu. Argia gainazal distiratsu batera iristen denean (ispilu batera, adibidez), beste norabide batean islatzen dira izpiak. Izpiak gainazalera islatu diren angelu berarekin islatzen dira, eta, horrenbestez, aurreikusi egin dezakezu norantz islatuko diren. Nahi adina ispilu erabil ditzakezu argi-izpiak islatzen jarraitzeko.